

METAL AROA

Igo diapositiba

Metal aroa



Igo azalpena (2. diapositiba)

Metal aroa, Nafarroako aztarnategiak




Nafarroako aztarnategiaren mapa ikus dezakegu.

Kolore morea: Brontze aroko (monumentu megalitikoak) aztarnategia aurkezten digu. Iruñerrian kokaturik dago.

Kolore beltza: Burdin aroko aztarnategiak adierazten ditu. Artaxoa, Larraga, Mendibia, Lodosa, Arguedas, Atalaya eta Cortes herrietan kokaturik daude.

2. azalpena (3. diapositiba)

Ardatz kronologikoa



Diapositiba honetak ardatz kronologiko bat ikus dezakegu, honetaz baliatuz, metal aroa historiaurrean koka dezakegu daten laguntzaz. Metal Aroan bi azpi-aro aurkitzen ditugu, Brontze aroa eta Burdin Aroa.

> ardatzan ere garai bakoitzean asmatu zituzten tresnak agertzen dira

3. azalpena (4. diapositiba)

Bizimodua

- Neolitoetik aurrera gizakiak kobazuloak utzi eta kanpoaldera abiatu ziren.
- Taldea txikiak zirenez, herrixka txikiak osatutako borobil formako txaboletan bizi ziren. Txabola horiek, ez ziren oso iraunkorrak landarediarekin eginak zeudelako. (aurrerago azalpena)
- Bardesetan berri, txabolen arrastoak aurkitu dituzte eta hauek iraunkorrak ziren, harritz eta adobez egindako paretak edo hormak zituztelako.

>Neolitoan kobazuloetan bizi ziren baina aurrerago, gizakiak kobazuloak atzean utzi eta kanpoaldera abiatu ziren. Herrixka berriak eratu ziren eta bizimodua erabateko aldaketa jasan zuen. (aurrerago xehetasun gehiagorekin azalduko dugu).

>Talde txikiak osatzen zituzten eta ondorioz, hasiera batetan herrixka txikiak osatu zituzten eta bertan bizitzeko borobil formako txabolak eraiki zituzten.(hurrengo diapositibako argazkia). Txabola horien iraunkortasuna urria zen, izan ere, naturako elementuez baliatzen ziren haiek eraikitzeko. Adibidez, lokatza, adarrak, pezoak... (aurrerago azalpen sakonagoa).

>Nafarroako beste zonalde batzuetan aldiz, herrixken egitura eta haien bizimodua ezberdin azen. Adibidez, Bardeetan, txabolen arrastoak aurkitu dituzte eta hauek, egitura borobila izan ordez egitura laukiarra zuten eta haien iraunkortasuna handiagoa zen. Txabolak harritz eta adobez eginda zeuden (horregatik ematen zen aurretik aipaturiko iraunkortasuna).


4. azalpena (5. diapositiba)



Lehen aipatutako txabolen adibidea da hau, ikus daitekenez forma borobila du eta haren egitura iraunkortasun gutxikoa da erabiltzen dituen materialengatik (lehen esandakoarekin lotuta). Lokatza eta pezozko enborrez osatutako pareta eta landarediarekin egindako teilatua (adarrak...)

5. azalpena (6, 7, eta 8. diapositiba multzoa)

Habitat




5.1. diapositiba (6)

• Eredu erreala Nafarroan: **EL Dorre (Artajona)**



5.2. diapositiba (7)

*Lautadetan herrixka garatuagoak ematen ziren, eta haien egiturak horretarakoak ziren:



5.3. diapositiba (8)

Burdin aroko biztanleria lehen esan bezala, herrixketan antolatzen hasi ziren. Bizimodu aldaketa hori gizartearen garapenaren seinale argia da, beraz, bere habitat berria aztertzerakoan haien bizimoduari buruzko informazio asko lor dezakegu. Habitat: Castroetan bizi ziren gehienetan. Herrixka hauen kanpoaldeko ezaugarriak hauek dira:

>Altuera dexenteko eremu lauetan kokatzen da (ikusi 5.1. diapositiba kolore **laranja**). Adibide gisa, El Dorre eredia dugu (Artaxoan aurkitutako aztarna errealak). (5.2. diapositibaren behe aldeko argazkia). Eremu altu batean kokaturik dagoela ikus dezakegu.

>Harrizko harresien bitartez inguratuta daude haien herria beste herri batzuegatik (gerrateak egon ohi ziren herri auzokideen artean inguruko eremua kontrolpean edukitzeko), animalienegatik (otxoak, azeriak...)...(ikusi 5.1. diapositiban kolore **gorria**)

Adibide gisa, El Dorre eredia dugu (Artaxoan aurkitutako aztarna errealak). (5.2. diapositibaren goi aldeko bi argazkiak). Harrizko harresiak ziren eta ikerketa zientifikoek jakin ahal izan dutenez, harri hauek 1Km-ko distantziara

dagoen zonalde batetik hartuak dira. Horrek jakinarazten digu hura sortzeko lan taldea beharrezkoa izan zela eta hura osatzeko ideia, plangintza eta eraketa prozesu antolatua eman zela.

>>Harresietan kontrol dorreak zeudela aipatzekoa da ere. (ikusi 5.1. diapositiban kolore berdea)

>Lautadetan herrixka garatuagoak ematen ziren eta aurreko ezaugarriak mantentzeaz gain, beste ezaugarri esanguratsu bat zuten kastroen kanpoko egiturari dagokionez: egitura zirkularra zuten eta haren erdigunean enparantza zegoen. Herrixka hauetan etxebizitza guztien egitura antzekoa dela ikus daiteke, ondorioz gizrtea hierarkizatuta ez zegoela jakin dezkegu. (ikusi 5.3. diapositiba)

6. azalpena (9 eta 10. diapositibamultzoa)



6.1. diapositiba (9)

6.2. diapositiba (10)

Orain etxebizitzetako barneko egitura aztertuko dugu. Argazkian etxebizitzako osagai bakoitzeko erreferentzia agertzen da, ikusi eta ulertzeko erraza denez aurkezpena egiten duen pertsonaren eskuetan utziko da azaltzeko modua, horrela naturaltasuna lortuko dugu eta azalpenaren ulerpena erraztuko da.

>6.2. diapositiban, azaldutako egituraren adibidea dugu. Las Eretas museoan (Berbinzana) egindako herrixka baten simulazioa da, eta bertan, aurreko diapositiban azaldutako ezaugarriak errealitatean nolako izango zen ikus dezakegu. (behar izatekotan berri zere aurreko diapositibara jo).

7. azalpena (11. diapositiba)

Las Eretas

- >1991. urtean aurkitu zuten metal aroko herrixka hau. (K.a. VII mendekoa da herrixka).
- >Herrixka harresi baten bidez inguratuta zegoen, hori egiteko talde lana eta aurreko ideia antolakuntza ezinbestekoak izan ziren. Herriaren erdigunean enparantza bat aurkitu zuten, lehen azaldutako egitura bera errespetatzen du. (lehen azaldu dugun bezala)
- >15%- 20% ikertu da (momentuz).



>1991. urtean aurkitu zuten metal aroko herrixka hau. Proiektu urbanistiko bat abian jarri zuten zonalde horretan, baina aurreko ikerketa batzuk bertan aurrikuntza arkeologikoak egon zitezkeela esaten zuenez, proiektuarekin hasi aurretik arkeologia proiektu bat martxan jarri zen(unibertsitateko 50 ikaslek parte hartu zuten ikerketan) (K.a. VII mendekoa da herrixka).

>Herrixka harresi baten bidez inguratuta zegoen, hori egiteko talde lana eta aurreko ideia antolakuntza ezinbestekoak izan ziren. Herrixkaren erdigunean enparantza bat aurkitu zuten, lehen azaldutako egitura bera errespetatzen du.(lehen azaldu dugun bezala)

>15%- 20% ikertu da (momentuz).

8. azalpena (12. diapositiba)

Las Eretas-en egindako ikerketaren argazkiak



Las Eretas-en egindako ikerketaren argazkiak dira, bertan ikerketako aurkikuntzak, ikertzaileak, ... ikus dezakegu.

9. azalpena (13. diapositiba)

- Las Eretas osatzen duten etxeak aurretik azaldutako egitura bera mantentzen dute:
Laukizuzenak, lurrezko lurrak, ataria labearekin, egongela, jakitokia.



Las Eretas osatzen duten etxeak aurretik azaldutako egitura bera mantentzen dute:

>Laukizuzenak, lurrezko lurrak, ataria labearekin, egongela, jakitokia. Diapositiba honetan, etxebizitza baten erreproduzio reala ikus dezakegu eta

10. azalpena (14, 15, 16, 17 eta 18. diapositiba multzoa)

Herrixka baten eboluzioa azaltzeko Las Eretas kasu errearen adibidea erabiliko dugu. Diapositiba bakoitzean marrazki hipotetikoa eta benetan aurkitu zena azaltzen da.


1go fasea:

Herrixka baten eboluzioa (las Eretasen adibidea)

• **Lehenengo fasea:**

Harresiak dagoeneko eginak daude, etxeak isolatutak daude elkarren artean ukitu gabe.


Paretak Lizar (fresno) emborrez eta lokatzez osatutak zeuden eta teilatuak aldiz, adarrez osatutak zeuden.



Harresiak dagoeneko eginak daude, etxeak isolatutak daude elkarren artean ukitu gabe. aretak Lizar (fresno) emborrez eta lokatzez osatutak zeuden eta teilatuak aldiz, adarrez osatutak zeuden.

>15.diapositiba, 1go fasea adibide errearekin (Las Eretas). Diapositiban bertan jartzen duena azaldu.

- >Las Eretas: Badakigu herrixka hau sute batengatik txikitu egin zela.




2. fasea:

• **Bigarren fasea:**

Herrixka aurreko fasearen errautsen gainean berreraikitzen da egitura sendoagoarekin eta etxeak bata bestearen ondoan daudelarik.

Paretak harriz eta pezoz (adobe) osatutak zeuden et teilatuak aldiz, egurrez, lastoz eta lokatzez eginak zeuden.




Herrixaka aurreko fasearen errautsen gainean berreraikitzen da egitura sendoagoarekin eta etxeak bata bestearen ondoan daudelarik. Paretak harriz eta pezoz (adobe) osatutak zeuden et teilatuak aldiz, egurrez, lastoz eta lokatzez eginak zeuden.

3. fasea:

- **Hirugarren fasea:**

Hurreko fasearekin lotuta dator; fase hau K. a. VI. eta V. menteetan eman zen.

Badirudi beste sute baten ondorioz herrixkaren zati bat deseginda geratu zela. Ondorioz, etxebizitza batzuen antolaketa birbanatu zen eta komunitate osorako lantegi bat eratu zuten. Bertan bi labe eta zerealen murtxiketa eta seguruenik ogia egiteko ontziak aurkitu zituzten.



Hurreko fasearekin lotuta dator; fase hau K. a. VI. eta V. menteetan eman zen. Badirudi beste sute baten ondorioz herrixkaren zati bat deseginda geratu zela. Ondorioz, etxebizitza batzuen antolaketa birbanatu zen eta komunitate osorako lantegi bat eratu zuten. Bertan bi labe eta zerealen murtxiketa eta seguruenik ogia egiteko ontziak aurkitu zituzten.

Las Eretas-en amaiera

Las Eretaseko amaieraren bilakaera azaltzeko hiru arrazoi nagusi egon zirela jakin behar dugu;

- Egindako ikerketengatik jakin dezakegu K. a. IV. eta III. Mendean herrixka txikia gelditu zitzaiela, populazio hazkunderengatik edo, eta harresiaren zati bat bota behar izan zutela (mendebaldeko zatia).
- K. a. I mendera arte bertan jendea bizi izan zelaren frogak daude. Badirudi momentu horretan herrixken arteko gerrateak zirela eta suntsitu egin zela Las Eretas.
- Mende batzuk geroago, erromatarrak Berbinzanara ailegatu ziren.

11. azalpena (19. diapositiba)

Hildakoak

Neolitoaren hasieratik Brontze aroaren amaierara arte, hildakoak txaboletatik hurbil zeuden hobietan lurperatzen zituzten.

·Baita ere, Neolitoaren bukaeratik Brontze aroaren hasieraraino, hildakoak trikuharrietan lurperatzen zituzten.

Hiladakoak eta kultuen gaia hasteko sarrera:

·Neolito aroaren hasieratik hildakoak txaboletatik hurbil lurperatzen hasi ziren. Gahienbat zulo edo hilobietan lurperatzen zituzten. Ekintza hau brontze aroaren amaierararte eman zen .

·Hala ere, beste lurperatzeko modu bat ere eman zen neolito aroaren bukaeran, hildakoak trikuharrietan lurperatzen zituzten. Ekintza honek ordea aurrekoa baino gutxiago iraun zuen , hain zuzen ere, brontze aroaren bukaeraraino. (hurrengo diapositibetan informazio gehiago).

12. azalpena (20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26. diapositiba multzoa)

20::Landuko dugun gaiaren ataria da.

Heriotzak eta kultoak



21::

Metal aroan bizi ziren giza taldeek gorpuak erretzen zituzten .
Beti egiten zituzten modu berean hildakoentzako errituak. Argazkian ikusten den bezala erretako hezurak zeramikako ontzietan sartzen zituzten. Hildakoen gauzak ere sartzen zituzten hoiekin batera. Hala nola, jantziak, apaingarriak, armak..
Eta janariz eta edariz betetako ontziak ere sartzen zituzten zeramikako ontzietan hildakoen hezur eta gauzekin batera.

>Argazkian aipatutako zeramika ontziaren adibide bat dago eta bertan sartzen dituzten apaingarriak, armak.. ageri dira ere.

- Metal aroko giza taldeek gorpuak erretzen zituzten egurrarekin.



- Modu berean egiten zituzten beti hildakoen errituak: erretako hezurak zeramikako ontzietan sartzen zituzten eta horiekin batera haien jantziak, apaingarriak, armak, janariz eta edariz betetako ontziak...



22::

Aurreko diapositiban agertzen den zeramikako ontzi horiek harri multzoen azpian lurperatzen dituzten, beti herrixketatik hurbil. Argazkian ikusten den bezala harri handiak ziren eta borobil baten itxuran kokatzen zituzten. Argi ikusi daiteke beraz, hain harri handiak izanda haiek mugitzeko lan taldea ezinbestekoa zela.
Artzai taldeek adibidez monumentu bereziak zituzten haien gorpuen errautsak lurperatzeko.
Hain zuzen ere, cromlech izeneko monumentuak eraikitzen zituzten.

•

- Aipaturiko zeramikako ontziak harri multzoen azpian lurperatzen zituzten, herrixketatik hurbil. Artzain taldeek ere haien taldeetako gorpuen errautsak lurperatzeko cromlechs izeneko monumentuak eraikitzen zituzten.
- Borobil baten itxuran kokaturiko harri handiak osatzen dute. Haiek osatzeko lan taldea beharrezkoa da.



23::

Haurrentzako errituak ere ezberdinak ziren, hauek ez zituzten herrixketatik hurbil lurperatzen ez harri batzuen azpian. Oso txikiak zirenean familiatik hurbil izateko asmotan, etxeetako lurren azpian lurperatzen zituzten. Zeramikako ontzietan ere eta haien gorpuarekin batera askotan ere apaingarriak eta opariak sartzen zituzten.

- Haurren errituak ordea ezberdinak ziren oso txikiak zirenean eta gehienetan etxeetako lurren azpian lurperatzen zituzten, familiaren hurbil egoteko asmotan. Askotan ere, apaingarri eta opariekin.



24::

Metal aroan, gerretan hiltzen ziren gudariak edo etsaiak ere hain berezko modua zuten hildakoen errituak egiteko eta gorpua lurperatzeko.

Esaterako, gerretan hiltzen ziren gudariak gurtzeko, hildakoen gorpua kanpoan uzten zuten, mendian, putreek jan zezaten. Horrela pentsatzen zuten haien arima zerura joango zela.

Gerran hiltzen zituzten etsaiak ordea ez zuten zerura joateko inongo erriturik. Hauei, burua mozten zitzaaien, eta haien zaldietan zintzilikatzen zituzten. Gero olioaz busti eta kaxa batean etxera eramaten zituzten buruak, harrotasunez erakusteko. Zenbat eta buru gehiago eduki gudari hobea kontsideratuko zutelakoan.

- Gerretan hiltzen ziren gudariak beste modu batera gurtzen zituzten. Haien gorputzak kanpoan uzten ziren putreak, haien gorpuak jateko uste baitzuten horrela haien arima zerura joango zela.
- Gerran hiltzen ziren etsaiak burua mozten zieten eta haien zaldietan zintzilikatzen zituzten. Olioaz busti eta kaxa batzuetan gordetzen zituzten etxean harrotasunez erakusteko.



25::

Hildakoei eginiko erritu hauetatik ondorioztatu daiteke nolabaiteko sinismenak zituztela, erlijio sinismenak izan haurretik. Adibidez lehen aipaturiko adibidea: gerran hiltzen ziren gudariak kalean utzi haien arima salbatzen zela pentsatuz.

Erromanizazioaren garaiko inkripzioek erakusten duten moduan, hainbat jainko jainkosa indigenak zituzten ere.

- Hildakoei eginiko erritu hauen bitartez ikusi daiteke bazituztela nolabaiteko sinismenak, erlijio sinismenak izan aurretik. Erromanizazioaren garaiko inkripzioetan ikusten den moduan, hainbat jainko jainkosa indigenak zituzten.



26::

Lurperatzeko beste toki batzuk:



13. azalpena (27. diapositiba)

Biziraupena

Ekonomian, nekazaritza garrantzia hartu zuen eta frutaren bilketa eta ehiza berriz, galdu zuten. Garatzeko, lanabes berriak asmatu behar izan zuten. Adibidez, harrizko lanabesak eta ehizarako arkuz jaurtitako geziak. Janaria prestatzeko, zuraz eta zeramikaz egindako ontziak erabiltzen zituzten.

Sarrera gisa:

Ekonomia nekazaritzan oinarrituta zegoen. Frutaren bilketa eta ehiza bigarren plano batera pasa ziren garantiza galduz (baina ehizatzen eta fruta biltzen jarraitu zuten). Nekazaritza eta ehiza garatzeko, lanabes berriak asmatu ziren. Hala nola, harrizko lanabesak eta ehizarako arkuz jaurtitako geziak. Aipatzekoa da, janaria prestatzeko harrizko eta zurazko ontziak erabiltzen zituztela.

14. azalpena (28, 29)

28::

• Nekazaritza:

Zerealak lantzen zituzten, horregatik haien etxebizitzak zerealak eta garagarra gordetzeko toki bereziak zuten. Hala nola, haiek lantzeko tresna bereziak ere aurkitu izan dira.

Garagardoa eta ogia zen elikaduraren oinarria eta lekale batzuekin konbinatzen zuten.



>Nekazaritzan zerealak lantzen zituzten, horregatik haien etxebizitzak zerealak eta garagarra gordetzeko toki bereziak zuten. Hala nola, haiek lantzeko tresna bereziak ere aurkitu izan dira. (erreferentzia argazkiei)
Garagardoa eta ogia zen elikaduraren oinarria eta lekale batzuekin konbinatzen zuten.

29.:

Abeltzantza:

Animalien heziketa ekonomiaren oinarritzat sustatu zen ere. Ardiak, ahuntzak, behiak, zaldiak, txerriak... zituzten eta nekazaritza lanetarako erabiltzen zituzten ere. Garrantzi handia ere jantziak egiteko eta haien hezurren bitartez lanabesak egiteko, horratza batik bat. Zibilizazio hoi bizi moduan animaliek zuten garrantzia handia zen, izan ere haiek egindako ontzietan animalien irudiak agertzen dira gehienetan.



Ehiza eta arrantza:

Oreinak, orkatzak eta basurdeak ehizatzen zituzten gehien bat. Hiru gauzetarako erabiltzen zuten; kultuak eta sinesmen erlijiosozko ekitaldiak egiteko, elikatze eta haien adarrekin lanabesak egiteko, larruekin arropak egiteko...



>Abeltzantza: Aipatu dugunez nekazaritza ekonomia oinarria zen baita ere, animalien heziketa edo abeltzantza oinarritzat ere sustatu zen. Ardiak, ahuntzak, behiak, zaldiak, txerriak... zituzten eta nekazaritza lanetarako erabiltzen zituzten ere. Garrantzi handia ere jantziak egiteko eta haien hezurren bitartez lanabesak egiteko, horratza batik bat. Zibilizazio hoi bizi moduan animaliek zuten garrantzia handia zen, izan ere haiek egindako ontzietan animalien irudiak agertzen dira gehienetan.

>Ehiza eta Arrantza: Gegien ehizatutako animaliak oreinak, orkatzak eta basurdeak ziren. Ehizatu ondoren animalia hiru ekintzetarako erabili ahal zuten; kultuak eta sinesmen erlijiosozko ekitaldiak egiteko, elikatze eta haien adarrekin lanabesak egiteko, larruekin arropak egiteko...

30.:

Artisautza:

Arotzak, burdingileak eta urreginak (eta zilargileak)

- K. a. V. mendean oso zabaldua zegoen zeltiberioen artean burdinaren urtze teknika eta haren forjaketa. Nafarroan ez zen iritsi brontzearen lanketa, hala ere, zilarraren eta urrearen erabilera eman zen, bitxiak egiteko (belarritakoak, lepokoak...), armen zati zehatz batzuk egiteko, edalontziak...



Diapositiban azaltzen dena egokia da baina hura hobeto ulertzeko kontzeptu hauek azaldu beharko dira:

-Forjaketa: errementari edo arotzaren arte eta teknikari deritza, zeinetan sua eta mailuaren bidez metalari forma ematen zaion.

-Urtze teknika (eskuineko argazkia): Burdina tenperatura oso altuan urtu egiten denean molde batean ipintzea moldearen forma hartzeko teknika.

31::

Buztingileak

K. a. IV. Mendera arte buztina lantzeko tornua ez zuten ezgutzen, hala ere, ontziak egiten zituzten. Baina tornuak iritsi zirenean ontzien eraketa masiboa eman zen, buztin bereziagoak erabiltzen hasi ziren, labeetan lantzen zituzten eta nola ez, apainketak egiten zizkieten (oxido manganesoarekin beltzez margotzen zituzten).



K. a. IV. Mendera arte buztina lantzeko tornua ez zuten ezgutzen, hala ere, ontziak egiten zituzten. Baina tornuak iritsi zirenean ontzien eraketa masiboa eman zen, buztin bereziagoak erabiltzen hasi ziren, labeetan lantzen zituzten eta nola ez, apainketak egiten zizkieten (oxido manganesoarekin beltzez margotzen zituzten).

15. azalpena (32. Diapositiba)

Hizkuntza

- Ezin dugu hizkuntza aztertu Kristo Aurreko II. mendera arte, non hiriak sortu eta hiriarren harteko antolaketa soziala gertatu zen.
- Garai hartako hirien izenak txanponetan aurkitu dira eta pertsonen izenak zeramiketan.
- Aztertu ondoren jakin zuten zeltiberiarra (zelta hizkuntza), iberiarra eta protoeuskera hitz egiten edo ezagutzen zutela (Erromanizazioan latina batu zitzaien). Hala ere hizkuntza hauen jatorria ezezaguna da.



Hizkuntza:

- Ezin dugu hizkuntza aztertu Kristo Aurreko II. mendera arte, non hiriak sortu eta hiritarren harteko antolaketa soziala gertatu zen.
- Garai hartako hirien izenak txanponetan aurkitu dira eta pertsonen izenak zeramiketan.
- Aztertu ondoren jakin zuten zeltiberiarra (zelta hizkuntza), iberiarra eta protoeuskera hitz egiten edo ezagutzen zutela (Erromanizazioan latina batu zitzaien). Hala ere hizkuntza hauen jatorria ezezaguna da.

16. azalpena (33. diapositiba)

Merkataritza eta Txanpona

Dakigunez, garai hartan, trukaketa erabiltzen zuten baina Burdin Aroaren amaieran, txapona erabiltzen hasi ziren. Brontzezko eta zilarrezko txanponak ziren eta txanponaren alde batean hiriaren izenak idazten ziren.



Las Eretas museoaan aurkeztutako metal aroko txanponak

Merkataritza eta txanpona :

Dakigunez, garai hartan, trukaketa erabiltzen zuten baina Burdin Aroaren amaieran, txapona erabiltzen hasi ziren. Brontzezko eta zilarrezko txanponak ziren eta txanponaren alde batean hiriaren izenak idazten ziren


17. azalpena (34 eta 35. diapositibak)

Arkeologia

Gaur egun arkeologiaren helburu nagusiena eta erabilpena, gizakia hobeto ezagutzeko helburua lortzeko lagundu dezaketen objektu baliotsuak aurkitzea da.



Gaur egun arkeologiaren helburu nagusiena eta erabilpena, gizakia hobeto ezagutzeko helburua lortzeko lagundu dezaketen objektu baliotsuak aurkitzea da.



Las Eretaseko ikerketa lanaren argazkiak dira honako hauek.

AMAIERA